

# GAZTEZULOREN IREKIERARAKO PROTOKOLOA

- Gaztezulora etorri aurretik, etxean sukarra duzun edo ez begiratu. Zuk edota senide batek COVID-19arekin loturiko sintomarik aurkezten badu ezingo zara zerbitzura etorri, eta aurreko egunetan hemen egon bazara, hezitzaileari, Aneri jakinarazi.
- Lokalaren gehieneko edukiera (8 gazte + hezitzailea), beteta baldin badago, Anerekin adostu zein txandatan etorri ahal duzun
- Sartu aurretik, eskuak gelarekin garbitu.
- Eskuak zerbitzuaren hasieran eta amaieran garbituko dira, baita ere begiraleak beharrezkoa ikusten duen bakoitzean; eta ekintzetan, distantziak ahalik eta gehien mantentzen saiatuko gara.
- Musukoa erabiltzea ezinbestekoa izango da. Musukorik ez baduzu ezingo zara sartu.
- kontaktu fisiko handia duten ekintzak saihestuko dira

## **GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMAN EZ GERO, EGIN BEHARREKOAK:**

- Haur batek ekintzak iraun bitartean COVID-19aren sintomak (eztula, sukarra, arnas hartzeko zailtasunak...) ematen baditu, Gaztezuloren bulegoan isolatuko dugu, beti ere bere behar emozionaletan arreta jarriaz.
- Familiarekin harremanetan jarriko gara
- Familia osasun-zentroarekin harremanetan jarri beharko da
- Gure lantaldea eta arduraduna informatuko ditugu
- Osasun-agintarien eta gure arduradunen neurri eta aginduen arabera jokatu dugu
- Kasu bakoitzean sortutako hondakinak (eskularruak, zapiak, maskarak...) poltsa batean sartuko dira eta ondo itxiko dira zakarrontzira botatzeko (errefusa)
- Haurren eta nerabeen datu pertsonalen erabilera zuzena egingo dugu, haien pribatutasuna zainduz



626 623 107 (Ane)

## GAZTEZULO-n KASU POSITIBO BAT ANTZEMAN EZ GERO EGIN BEHARREKOAK

- Positibo eman duen kasuarekin gaztezulon harremana izan duten familiei egoeraren berri emango zaie.
- Egoerak hedapen handiagoa badu, gaztezuloren gainontzeko erabiltzaile eta familiei egoeraren berri emango zaie.
- Positibo egoera baten aurrean, gaztezulo itxi egingo da eta beharrezko desinfekzio neurriak hartuko dira
- Edozein kasutan, haurren eta nerabeen datu pertsonalen erabilera zuzena egingo dugu, haien pribatutasuna zainduz.